



MENDAROKO
UDALA

| Iragarkia | Anuncio, |
|---|--|
| <p><i>Mendaron hutsik dauden edo hutsik gelditzeko aurreikuspena duten lokaletan jarduera ekonomiko berri bat abian ipintzeko edo jarraipena emateko diru-laguntzak banatzeko OINARRIAK</i></p> <p>Udalbatzak, 2020ko urriaren 29an egindako bilkuran, honako erabaki hauek hartu zituen:</p> <p>Lehenengoa.- Mendaron hutsik dauden edo hutsik gelditzeko aurreikuspena duten lokaletan jarduera ekonomiko berri bat abian ipintzeko edo jarraipena emateko diru-laguntzak banatzeko OINARRIAK hasieran onartzea, espedientean jasota dagoen bezala.</p> <p>Bigarrena.- Oinarri hauek jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea, Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratuta, 30 eguneko epean, erreklamazioak edo iradokizunak aurkez ditzaten, eta Udalbatzak ebatziko ditu. Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da, osoko bilkurak berariazko erabakirik hartu beharrik izan gabe.</p> <p>Aldi berean, Oinarrien testua Udalaren web-atarian argitaratzea [helbidea: https://www.mendaro.eus], eragindako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona edo erakunde batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarri guztiak jasotzeko.</p> <p>Hirugarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten era guztietako agiriak sinatzeko.</p> | <p><i>BASES para el reparto de subvenciones para la puesta en marcha o continuidad de una actividad económica en locales vacíos o con previsión de permanencia en Mendaro.</i></p> <p>El Ayuntamiento en Pleno, en sesión de fecha 29 de octubre de 2020, adoptó los siguientes acuerdos:</p> <p>Primero.- Aprobar inicialmente, tal y como consta en el expediente, las bases para el reparto de subvenciones para la puesta en marcha o continuidad de una actividad económica en locales vacíos o con previsión de permanencia en Mendaro.</p> <p>Segundo.- Someter las presentes bases a información pública y audiencia a los interesados, mediante su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y tablón de anuncios del Ayuntamiento, para que en el plazo de 30 días presenten reclamaciones o sugerencias, que serán resueltas por el Pleno de la Corporación. Transcurrido dicho plazo sin que se hayan presentado reclamaciones o sugerencias, se entenderá definitivamente aprobada, sin necesidad de acuerdo expreso del Pleno.</p> <p>Al mismo tiempo, publicar el texto de las Bases en el portal web del Ayuntamiento [dirección: https://www.mendaro.eus] para dar audiencia a la ciudadanía afectada y recibir todas las aportaciones adicionales que puedan realizar otras personas o entidades.</p> <p>Tercero. Facultar al Alcalde-Presidente para la firma de toda clase de documentos relacionados con este asunto.</p> |

Mendaron, 2020ko urriaren 30ean.

ALKATEA,
Iñaki Arregui Uribe